



PDF irisgarria



Irakurketa Errazean

Bidegabeko bidea


Eskultura honek

Bidegabeko bidea du izena

eta Artesiagan dago, Irurita herrian.

Irurita Baztanen dago,

Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian

Baztan non dagoen ikus dezakezu.

Frankismoaren garaian frankistek

preso asko lan publikoetan

bortxazko lanak egitera behartu zituzten,

adibidez, errepideak, zubiak edo eraikinak egiteko.

Bortxazko lanak pertsona batek behartuta

eta dirurik jaso gabe egiten dituen lanak dira.

Frankistek bortxazko lanak

presoak umiliatzeko eta zigortzeko,

obrak merkeagoak izateko

eta frankismoaren pentsatzeko modua inposatzeko erabiltzen zituzten.

Bortxazko lanak Errepublikanoen
haien bizitza frankismoaren Espainia Berrian
nolakoa izango zen erakusteko
erabiltzen zituzten ere.
Gogoratu Errepublikarrek
Gerra Zibila galdu zuten pertsonak zirela.

1939 eta 1941 urteen artean
preso askok Iruritatik Eugira doan errepidea eraikitzeko
bortxazko lanak egin zituzten.

Hainbat erakunde eta elkartek
Bidegabeko bidea eskultura jartzen lagundu zuten.
Hauek dira eskultura jartzen lagundu zuten
instituzio eta elkarteak:

- Baztango Udala
- Irurita herria
- Geronimo de Uztariz Institutua
- Memoriaren Bideak Elkartea.

Bidegabeko bidea eskultura

askatasuna lortzeko sufritu zuten pertsona guztiei
egindako omenaldia da.

Eskultura honek honetarako balio du:

- Sufritu zuten pertsonen kaltea konpontzeko,
hau da, senideei
eta sufritu zuten beste pertsona batzuei
kontsolamendua emateko.
- Sufritu zuten pertsonen
egin zuten sakrifizio eta ahalegina eskertzeko.

Hemen Bidegabeko Bidea eskulturaren
argazki bat ikus dezakezu:

